




LATINOAMERIKA BIDEGURUTZEAN

0.

Sarrera

Dokumentu honen bitartez, gaur egun Latinoamerika jasaten ari den egoera ezegonkorraren analisia egiteko gakoak eskaini nahi ditugu. Historian zehar kontinente honetan eman diren prozesu politikoek markatu dituzte, besteak beste, gure erakunde internazionalistaren praktika eta lehentasun politikoak, hala nola, 60ko hamarkadako Kuba iraultzaileak, 80ko Erdialdeko Amerika errebeldeak, 90eko indigenismo zapatistak eta XXI. mendean indartutako iraultza bolivartar eta kontinentalak.

Hori guztiagatik, beharrezkoa eta premiazkoa ikusten dugu irakurketa hau egitea, esperientzia horien balantze zehatzik egiteko asmorik gabe, baina Latinoamerikako herri errebeldeen gaur egungo egoeraren kritika egiterakoan errealtate hauek kontuan hartuaz.

Zentzu honetan, gure ustez, tokiko oligarkiek eta Europa eta AEBen inperialismoak kontinenteko borroken zikloa behin betiko ixteko egiten dituzten ahaleginetan dago egungo egoera ulertzeko gakoak. Borroka ziklo honen hastapenetatik indarrean dagoen berrezarpen inperialista eta neoliberalaren proiektuak azken fasean sartzeko aukera eta beharra topatu ditu, barne-arrazoi eta, bereziki, kanpo-arrazoi desberdinak direla eta. Planteamendu honen helburu estrategikoa bere atzeko patiotzat duenaren gaineko kontrol absolutua da; eta horretarako, Latinoamerikaren integrazio eta burujabetza prozesu historikoaren motor politiko, ekonomiko eta ideologikoa izan dena, Venezuela bolivartarra, suntsitzea funtsezkoa da.

Beraz, gaur egungo egoeraren gakoak ulertzeko, lehenik eta behin, neoliberalismoak azken herri-borroka zikloa hastean jasan duen porrot politiko-ideologiko historikoari erreparatu behar diogu, herri mugimendu eta herri gobernuek errotik aldatu dituzten kontinente mailako indar korrelazioen inguruan hausnartuz.



Abya Yalako herrien aurrerapen historikoari errepasoa egin ondoren, inperioak martxan jarritako kontraerasoak aztertzeari ekingo diogu; izan ere, egungo mundu mailako kapitalismoaren krisi estrukturalaren markoan, inperioak Latinoamerikako herri sektoreek bereganatutako botere-guneak behin-betiko berreskuratzeko beharra baitu.

Bukatzeko, alde batetik, borroka ziklo horretatik jasotako irakaspen nagusiak, eta bestetik, Euskal Herriko praktika internazionalistarentzako lehentasun izan behar duten ekintzaildoak azalduko ditugu.

Askapena
Euskal Herria, 2016ko urria

1.

Garai aldaketa: neoliberalismoaren porrot politiko-ideologikoa



1994ko urtarrilaren 1ean, Mexiko, AEB eta Kanadaren arteko Amerikako Merkataritza Askeko Itunaren sinatu ondoren, altxamendu zapatistak borroka ziklo berri bat ireki zuen Latinoamerikan, nekazari eta indigenen aldarrikapen zuzenen bitartez sistema kapitalista neoliberalari erantzunez.

Horrela, 70eko hamarkadan kapitalaren metaketa krisiari aurre egiteko inperialismoak klase menperatzaileen laguntzaz ezarri zuen proiektu estrategikoari esker lortutako hegemonia pitzatzen hasi zen. Estatuak zituen ezaugarri sozial apurrak sistematikoki deuseztatze prozesua diktadura faxistek ezarri zuten eta diktadura ondorengo erregimen demokratikoei konstituzionalki bermatu zuten pribatizazioen, lan-malgutasunaren eta liberalizazio komertzial eta finantzarioaren bidez. Horregatik baliabide natural eta publikoen arpilatze historikoa areagotu zen eta kapitalismo periferikoaren ekonomien menpekotasuna eta industrializazio prekariora larriagotu egin zen, herriaren gehiengo eta langabezia estrukturala are gehiago hondoratuz.

Horri lotuta, nazioarteko kapitalarekin aliatutako burgesia lokalen aberastasuna geroz eta gehiago kontzentratu zen eta desparekotasun sozialen adierazleak zifra historikoetara iritsi ziren. Estrategia neoliberalarentzat Nazioarteko Diru Funtsa izan zen AEBen interesei zintzoki men egiten zion abangoardia politiko-ekonomiko perfektua; izan ere, erakunde honek xantaia eta itun zikinen bitartez ordura arte kapitalismoaren atzaparretatik babestuta zeuden esparru bakanak merkantilizatzeko egiturazko doikuntzak egitea onartu zuen, Latinoamerikako herrien zorra handitzearen truke.

Erreminta politiko eta ekonomiko hauen euskarria

establishmentaren aparatu ideologikoak koordinatutako kanpaina mediatiko uniformeak ziren, merkatuaren logikaren onurak goraipatu, Estatuaren rol erregulatzailea estigmatizatu eta iparraldeko nagusiaren esanak zalantzan jartzen zituen guztia kondenatzen zutenak. Washingtoneko kontsentsua delakoak, horrela, kapital transnazionalarekiko menpekotasun politiko, ekonomiko eta kulturala ezarri zuen Latinoamerikako herrietan. Ondorioz, momentuko *status quo*-a naturalizatu egin zen eta, berdintasun, birbanaketa eta elkartasun aldarrikapenekin lotutako kontzeptuak ez ezik, indarrean zegoen sistema sozioekonomikoaren izaera saihestezina zalantzan jartzera ausartzen zen edonor ezabatu zuten, kontu handiz, eztabaida politikotik.

Eraso neoliberal zuzenak, herritarren zatiketa eta langile borroken beheraldia ezaugarri zituen markoan ekin zion EZLNk altxamendu armatuari Latinoamerikako historian errotutako aldarrikapenen lekukoa hartuta (landa-eremuko eta indigenen problematika) eta globalizazio kapitalistari esplizituki aurka egiten zion masa-mugimendua bultzatuz. Horrela inflexio-puntu bat ezarri zen eskualdean jokoan zegoen indar-korrelazioan, maila subjektiboan batez ere. Ordura arte jasandako zapalkuntza sozialen aurrean herriaren haserrearen erakustaldi ugari izan baziren ere, Venezuelako Caracazoa edo Argentinako 89ko arpilatze masiboak kasu, egia da ez zutela EZLNren mailako antolakuntza ideologiko edo estrategia mediatikorik erakutsi.

Europako sasi-militantzia ezkertiarrengan izan zuen eragin erromantikoaz gain, indar beligerante hori agertzeak eragin sakon eta itxaropentsua izan zuen Latinoamerikako herri-blokean eta aldi berean, gaur egun ezinbestekoa den problematika bat sartu

zuen burujabetza lortzeko agenda politikoan; jatorrizko herrien eskubideena, hain zuzen ere. Horregatik deritzogu zapatisten altxamendua izan zela eskualdean hasiera eman ziona izaera antineoliberal, indigenista eta antiinperialista duten herri-ekimen eta errebolten ziklo berri honi.

Hori baieztatzeak eta matxinada zapatista borroka ziklo berriaren hasieratzat hartzeak ez du esan nahi XX. mendean zehar Latinoamerikan eman ziren burujabetzaren aldeko borroken jarraipena eta elkarri egindako ekarpenen garrantzia ezeztatzen dugunik. Izan ere, Kubako Iraultza, 60-70eko hamarkadetan kontinente osoan zehar eman ziren gerrillari, nekazari, ikasle eta langile borroka edo Sandinisten garaipena bezalako funtsezko gertakariak izan ziren 90ko hamarkadaren erdialdean ireki zen ziklo berriko aktore nagusiak politikoki eta ideologikoki elikatu zituztenak.

1.1 Errebolta eta herri-gobernuak

Borroka testuinguru berri horretan korrante ideologiko antisistemiko berria gorpuztuko zuten matxinada ugari eman ziren kontinentean zehar, horrela, garai aldaketa erradikalari bidea emanez.

Fenomeno honen adierazgarri argiak dira uraren pribatizazioaren eta baliabide naturalen espoliazioaren aurkako errebolta Bolivian ("uraren gerra" 2000. urtean eta "gasaren gerra" 2003an). Borroka horiei esker 2005ean Lozada presidentea eta bere ondorengo zen Mesa kargugabetzea, eta ondorioz, eskuinaren zikloa ixtea lortu zen, hala, MAS alderdiak eta Boliviaren historiako lehen presidente indigenak, Evo Moralesek, bultzatutako eraldaketa ziklo eratzaile berriari ateak irekiz.



Gobernu berriaren aldaketa aipagarriena, dudarik gabe, Gonzalo Sánchez de Lozada (Goni) eta geroago Mesaren aurka matxinatu ziren mugimenduek proposatutako Urriko Agendako neurrietako bat izan zen; hidrokarburoen nazionalizazioa, alegia. Neurri horrekin, Estatu gasaren eta petrolioaren salmenten irabazien %20 jasotzetik %80 jasotzera pasa zen eta horri esker, alfabetizazioa, erretiro-pentsioak, eskola bekak edo unibertsitate berriak bezalako plan sozialak martxan jartzeko oinarri ekonomikoa eratu ahal izan zen.

Eremu politikoan, Estatuaren Konstituzio Politiko berriaren eraketa izan zen aldaketa nagusia. Konstituzio honek Boliviaren nazio-aniztasuna eta herritarrei zegozkien hizkuntza eta lurralde-eskubideak aitortzen ditu, orokorrean "ongi bizitzearen" mundu-ikuskera indigenaren kontzepzio berrian oinarriturik baitago. Bestalde, Bolivian eman den aldaketaren irudi argia dezagun, nabarmentzekoa da Mundu Bankua bezalako instituzioek ere onartzen dutela Hego Amerikako herrialderik txiroenetako bat zenak (kontinente mailan Haitik bakarrik gainditzen zuen Bolivia) pobrezia tasak %60tik %35era jaitsi dituela eta desparekotasuna 0.60koa izatetik 0.47koa izatera pasa dela ordutik (Gini indizeen arabera).

Andeetako beste herrialde batean ere, Ekuadorren, matxinada ugari politika neoliberalen aurka egin zuten. 1997an eta geroago 2000. urtean, bi presidente kendu zituzten kargutik (Bucarán eta Mahuad, hurrenez hurren) CONAIE, Ekuadorko Nazionalitate Indigenen Konfederazioa, buru zuten mobilizazio indigena masiboen eraginez. 2003an Gutierrezen presidentziaren bidez zilegitasun instituzionala berreskuratzeko saiakerak ez zuen Ekuadorko langileria luzaroan engainatu; aitzitik, herria izan zen 2005ean berriz ere eszena politikoan sartu zena "gaizkileen errebolta" delakoarekin eskuinaren hegemoniari amaiera emanez eta Rafael Correa gobernura iristeko eta Herritarren Iraultzari hasiera emateko baldintzak bermatuz.

Kontuan hartzekoa da Ekuadorreko gobernuak, presidenteak eta berak sortutako Alianza PAÍS alderdiak ez dutela izaera iraultzailea, aurrerakoia eta sozialdemokrata baizik, nahiz eta jendeak kalean aldarrikatzen dituen aldaketak bultzatu eta

babesten dituzten. Hiru lorpen aipagarrienak hauek dira: lehenik, AEBen base militarrek kanporatzea (Manta-ren kasuan, esaterako, kontratua bukatu egin zen eta mobilizatutako herritarren eskaerak kontuan hartuta, ez zuten berritu); ondoren, konstituzio berriaren eraketa, Boliviakoak baino kutsu neoliberalagoa badu ere Ongi Bizitzearen kontzeptuaz elikatzen dena; eta azkenik, Estatu Batuekin Merkataritza Askeko Ituna sinatzeari uko egin izana.

Aldaketa horiei guztiei esker pobrezia maila %37tik %23ra jaitsi zen eta desparekotasun indizea (Gini) 9,55etik 0,448ra. Muturrei erreparatuz gero, biztanleriaren %10 aberatsenaren eta %10 txiroenaren diru-sarreraren arteko desberdintasuna 42tik 25era jaitsi zen; bestela esanda, ekuadortar txiroenen diru-sarrerak bikoiztu egin ziren Herritarren Iraultzaren urteetan zehar.

Hirugarrenik, Iraultza Bolivartarra herrialdeko eraldaketa-prozesu guztien eragile eta katalizatzaile ukaezina izan da. Venezuelaren kasuan logika

neoliberalarekin izandako hausturak ez zuen ohiko eskema jarraitu, alegia, masa-mugimendu antolatu batek ez zuen *establishment*a kargutik kendu herri-gobernua goratuz. Hala eta guztiz ere, masen eta gobernu bolivartarraren arteko interakzio dialektikoak gobernu bera sendotzen lagundu zuen, ardatz antineoliberal eta antiimperalistaren inguruan elkar elikatuz eta eraikiz. Hugo Chávezen gobernuaren politika eraldatzaileek haien interesak mehatxatzen zituztela sentitu zutenean, imperialismoaren aldeko klase menderatzaileek kontraerasoari ekin zioten (2002ko Estatu kolpea, 2003ko greba patronala), eta jazarpen hauei herri mobilizazioen bidez aurre egitea izan zen, hain zuzen ere, prozesu bolivartarra erradikalizatzea eragin zuena.

V. Errepublikaren Konstituzio berria izan zen, dudarik gabe, bide berri bat ireki zuena, ez soilik Venezuelarentzat, baizik eta Latinoamerika osoarentzat, aurretik aipatu ditugun beste konstituzioentzat inspirazio-iturri izan baitzen. Betiko botereei (betearazlea, legegilea, judiziala) beste bi



gehitu zitzaizkien konstituzio honetan: herri boterea eta hauteskunde-boterea, eta hauei esker Komunak sortu ziren eta, paradoxikoki, baita gaur egun oposizioa harro sentiarazten duen Baliogabetze Erreferenduma ere. Iraultza Bolivartarraren neurri sozial kontaezinak gehitu behar zaizkio honi: herriaren alfabetizazio sistematikotik, unibertsitate publiko berrien eraketara; auzo guztietan mediku eta osasun zentroak egotetik hasi eta pobreenak betatzeko aukerarik ez duten ospitale berrietara; erabili gabe zeuden orube eta hiri-etxebizitzak okupazioa baimentzen duten legeetatik, Etxebizitza Planak sortzeraino; hiri sozialistetatik, nekazaritza erreformataraino. Iraultza legal eta instituzional izugarria, herritarren ideologia eta ohituretan astiro barneratzen bada ere, koiuntura eta gobernu desberdinen gainetik dagoen oinarri iraunkor bat eratu duena.

“2005. urtean ziklo berriko indar-korrelazioa bistaratu eta finkatu zen, ALCA ez ezik integrazio bolivartarraren proiektua ardatz izango duen jokaleku politiko eta geoestrategiko berri bat zabalduz Latinoamerikan”

Aldaketa konstituzional indartsuak, baliabide naturalen berreskurapen estrategikoak eta, Bolivia eta Venezuelaren kasuan, politika sozialen aurrerapen paregabeek lagunduta etorri ziren herri-ahalduntzeak eragin dituzten prozesu sakon hauei Argentinako eta Brasilgo prozesuak batu zitzaizkien. Hauek, aurretik aipatutako hiru herrialdeek adinako barne-aldaketarik bizitu ez bazuten ere, eskualdeko eta nazioarteko botere politikoaren artean balantza berri bat ezartzea lortu zuten.

1.2 Integrazio bolivartarra eta bigarren independentziarako borroka

Inperialismo yankiaren eta Latinoamerikako herri-botereen arteko indar korrelazioen aldaketa argi geratu zen 2005ean Mar de Platan, eskualdeko gobernuei ALCA (Ameriketako Merkataritza Askeko Eremua) inposatzeko G. W. Bush-en enegarren saiakera arbuiatu zenean. Washingtingo Kongsentsuaren azken porrot honek agerian utzi zuen kontinenteko herri-gobernuen eta herri-botereen aurrerapen garailea; argi eta garbi erakutsiz inperialismo iparramerikarrak Abya Yalako herrietan izandako hegemonia politikoaren galera eta tokiko klase menperatzailearen baitan zegoen hegemonia ekonomiko neoliberalaren narriadura.

ALCAk gatazkak sortu zituen barne-merkatuen menpeko enpresa globalizatuen artean eta talkak eragin zituen esportatzaile eta industrialen artean. Venezuelako gobernuaren eta Mar de Platako ALBAren goi-bileran zeuden herri-mugimenduen errefusak MERCOSUReko herrialdeak (Argentina, Brasil, Paraguay eta Uruguay) ALCAren aurka agertzerak bultzatu zituen, lehiakortasun kapitalista zela eta; hala, Kolonbiako (Uribe) eta Mexikoko (Fox) gobernu txotxongiloak izan ziren ortodoxia neoliberalaren defendatzaile bakarrak.

Beraz, 2005. urtean ziklo berriko indar-korrelazioa bistaratu eta finkatu zen, ALCA ez ezik integrazio bolivartarraren proiektua ardatz izango duen jokaleku politiko eta geoestrategiko berri bat zabalduz Latinoamerikan.

Horrela, ALBA sortu zenetik (2001) eta Venezuela eta Kubako gobernuek martxan jarri zutenetik (2004) bi ideia gorpuztu dira: hasteko, herri blokearen gaitzespena esparru ekonomiko eta politiko-militarreko dinamika interbentzionista yankiei, eta jarraitzeko, printzipio ez-merkantilistatan eta historia komun bat berreskuratzean oinarritutako kontinente mailako integrazio proposamen berri baten beharra. Proiektu estrategiko honen helburua, beraz, ez da Abya Yalako herrien menpekotasun harremanei amaiera bat ematea soilik, baizik eta kooperazio eta

elkartruke komertzial solidarioak bultzatuz, Latinoamerikako herrialdeen arteko harremanen berdefinizio erradikal bat egitea, herri bakoitzaren behar eta berriazkotasun ekonomiko eta kulturalen arabera.

Orokorrean, ALBA osatzen duten herrialdeen pixkanakako integrazioa herrialde bakoitzeko barne-gatazken ondorioz botere politikoaren balantza herri-indarren alde jartzen zenean eman zen. Horrela, Kuba eta Venezuelako gobernu iraultzaileen protagonismo eta bultzada ukaezinek aldaketa prozesuak bizitzen ari ziren herrialde anaietan topatu zituzten aliatu estrategiko naturalak.

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, Bolivian nahiz Ekuadorren ireki ziren prozesuak bat zetozen ALBAren planteamendu antiinperialista eta kooperazio solidarioaren ideiekin. Bi herrialde hauek alternatibara gehitzea (2005 eta 2009an hurrenez hurren), Nikaraguako gobernu sandinistarekin batera (2007), herri-aldarrikapenak eta barne-mailako aldaketak kanpo-harremanen mailara eramatearen emaitza izan zen. Zentzu honetan, izendatzaile komunak zituzten gobernuen bloke berri bat agertu zen, Latinoamerikako batasun burujabe baten alde ez ezik, bakoitzaren herrialdean politika eraldatzailerak martxan jartzeko apustua egiten zutenak.

Baina Latinoamerikaren integrazioaren aldeko proiektua ez zaio ALBAri mugatu, ezta MERCOSURen ikuspegi berriari ere (gaur inoiz baino eztabaidagarriagoa dena, Argentinako aldaketa politikoen eta Brasilgo Estatu kolpearen ondoren). Ezin ditugu alde batera utzi, hain zuzen ere, Washingtingo Kontsentsuak bilatzen zuen botereari zuzenean aurre egiten dieten instituzioak: CELAC (Latinoamerika eta Karibeko estatuen elkargoa), Latinoamerikako herrialde guztiez osatuta dagoena eta AEB eta Kanada kanpo uzten dituen, OEA (Ameriketako Estatu Erakundea) erakunde inperialistari kontrajartzen zaio; Hegoaldeko Banketxeak eta ALBAren Banketxeak, aldiz, Mundu Bankua, Nazioarteko Diru Funtza eta UNASUR, Hego Amerikako Nazioen Batasunari erronka egiten diete.

Herrialdeen egituraketa berri honen aurrean, eta bereziki, inperialismoaren aurkako jarrera barne-erreforma estrukturalekin konbinatzen duten eta klase menderatzaileari aurka egiten dieten prozesuen aurrean, inperialismoa eta bere jarraitzaileak ez ziren eskuak gurutzatuta geratu.

Horrela, bere atzeko patiotzat jotzen zuenaren menpekotasuna berreskuratzeko kontraerasoa martxan jarri zen, ahalik eta baliabide eta fronte gehienak mobilizatuz.



2. Kontraeraso inperialista



Lehenik eta behin kontraeraso hau epe luzerako ildo historiko baten fase bat bezala kokatu behar dugu AEBek lurralde honetan bultzatutako menperatze prozesuan. Izan ere, kontinente latinoamerikarrak duen garrantzia estrategikoa ikusteko nahikoa da azken bi mende hauetan Estatu Batuen inperialismoak bultzatutako esku-hartze eta esku-sartze politiko, ekonomiko eta militarren historia amaiezina gogoratzea.

Politika inperialista hau 1824an hasi zen, AEBen historiako lehen kanpo-politikako doktrina, Monroe doktrina ezaguna (Amerika amerikarrentzat), garatu zutenean; hain zuzen ere, garai horretan inperialismo espainolaren uztarpetik askatzeko prozesua amaitzen ari zen kontinentea kontrolatzeko helburuarekin. Data horietatik aurrera politika inperialista horrek Latinoamerikako herrien bizitza markatu zuen Estatu Kolpe (Guatemala, Brasil, Chile, e.a.), akordio eta esku-hartze militar (Elkarrekiko Sorospen Hitzarmen Interamerikarra, Kubaren inbasioa, Granada, e.a.), Estatu terrorismoa eta paramilitarismoa (Kondor operazioa, *Contrak* Nikaraguan, El Salvadorren, e.a.) edo akordio eta instituzio ekonomiko harrapariak (Garapenerako Aliantza, Garapenerako Banku Interamerikarra, Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa, e.a. bezalako baliabideak erabiliz. Beraz, Estatu Batuek era guztietako mekanismo eta modalitateen beharra izan du kontinentearen kontrola bermatzeko eta burujabetzaren aldeko saiakeren garrak itzaltzeko (Mexikoko iraultza, iraultza boliviarrak, Kubako iraultza, 70eko hamarkadako herri eta gerrilla borroka, Txileko eta Erdialdeko Amerikako iraultzak e.a.), izan ere, lurraldearen hurbiltasunak eta izugarritzko aberastasunak betidanik piztu izan du iparraldeko bizilagunaren interesa eta gutizia.

Hegoamerikak gaur egungo sistema ondo moldatzeko guztiz ezinbestekoak diren baliabide

natural estrategikoen espektro zabala du. Kalkulatzen da 20 milioi kilometro karratu eta 600 milioi biztanleko merkatua duen lurralde honetan mundu mailan existitzen den ur gezaren eta biodibertsitatearen ia erdia dagoela, lehen mailako baliabide energetikoekin (petrolio, gasa eta hidroelektzitate) eta mineral estrategikoekin batera: bismutoa, litioa, niobioa, torioa, urrea, zinka, uranioa, zilarra eta kobrea besteak beste.

Hauek dira, beraz, aurreko mendearen amaieran eskualdean hasitako borroka ziklo berriaren aurrean inperialismo yankiaren erantzuna analizatzerakoan kontuan hartu beharreko joera historiko eta datuak.

2.1 Inperialismoaren erantzuna garai aldaketaren aurrean

Chavez gobernura iritsi eta kontinenteko Iraultza Bolivartarraren proiektua gauzatzen hasi zenetik, AEBek eta tokian tokiko oligarkiek, haien estrategia historikoarekin jarraituz, ez zioten Rafael Correaren "garai aldaketa" gisa izendatutakoa eragozteari utzi. Horrela, burujabetza prozesua indartzen eta kontinente osoan zehar zabaltzen ari zen heinean, inperialismoak estrategia bat garatu zuen fronte guztietan baliabide desberdinak uztartuz: estrategia kolpista (Venezuela, Bolivia, Ekuador, Paraguay, Honduras), jazarpen mediatiko eta ekonomikoa (greba patronalak, horniduraz gabetzea, petrolio-sabotajea) presio militarra (IV. Flotaren aktibazioa, Kolonbiako 7 base militarrek, e.a.) eta merkataritza askeko akordio ekonomikoak. ALCaren porrotaren ondoren, aldebiko hitzarmenen edo herrialde aliatuen arteko akordioaren aldeko apustua egiten da (Pazifikoko Aliantza).

Oreka galarazteko ahalegin izugarri horrek, burujabetza prozesuaren garapenean oztopo handiak sortu baditu ere, ez du garaipen

kualitatiborik lortu mende honen lehen hamarkadan zehar. Gaur egun bizi dugun salto kualitatiboarekin klase zapaltzaileek porrot partzial hauentzako irtenbide bat topatu nahi dute.

2.2 Eraso inperialistaren behin betiko fasea

Argi eta garbi dago Estatu Batuen ustez eraso honek behin betikoa izan behar duela. Izan ere, haren ekonomiaren egoera geroz eta ezegonkorragoa izateak azken hamarkadetan zehar galdutako eremu ekonomikoen kontrola lehenbailehen berreskuratzea exijitzen du eta ondorioz, ezinbesteko garrantzia hartzen du, beste lehentasunen gainetik, Latinoamerikako herri blokea osatzen duten herrialdeak oinperatzea.

Arlo politiko-ideologikoan eremua galtzeaz gain, Latinoamerika, lehen aipatu bezala, baliabide naturalen funtsezko iturria da inperioarentzat eta momentu honetan haren krisi sistemikoa larriagotzen ari denez, herrialde hauek dituzten lehengaien kontrola bereganatzea erabateko lehentasuna da. AEBen kontrolpeko gobernuak boterean jartzeak harrapakin preziatu hori eskuratzeko kostua gutxituko luketen politika berriak inposatu ahal izatea suposatuko luke.

Baina eskualdean jokoan dagoena benetan ulertzeko, eraso hau munduko lidergoa mantentzeko Txina eta Errusiarekin duen norgehiagokaren barruan kokatu behar dugu, hauek baitira AEBen hegemonia aurrez aurre zalantzan jartzen duten potentzia bakarrak. Bestalde, suspertzen ari diren potentzia hauek haien gune geografiko hurbilenetan berreskuratutako eraginari azken hamarkadan latinoamerikar kontinentean irabazitako presentzia eta egindako inbertsioak gehitu behar zaizkio. Eta hori Estatu Batuek ezin dute onartu.

Beraz, Latinoamerika lehentasunezko fronte bat da, bai, baina beste gune eta baliabide geopolitiko ugari barne hartzen dituen estrategia batean kokatua dago. Baliabide geopolitiko hauen adibide batzuk: Errusia edo Txina militarki inguratzeko saiakera, AEBek eta Ekialde Hurbila eskualde giltzarriko akolitoek eragindako "kontrolpeko kaosa" edo Txina eta Errusia bakartzeko eta Estatu Batuen proiektu

politiko-ekonomiko neoliberalak sakontzeko merkataritza askeko esparru globalak ezartzea (TTIP, TTP, e.a.).

Esku artean dugun gaiaren garrantzia geoestrategiko eta geopolitikoa argituta, erraz ulertzen dira AEBek egindako ahalegin izugarriak kontinentean esku-hartzeko ildo desberdinak ireki eta funtsezko garaipenak lortzeko. Argentinako presidentzia berreskuratzea garaipen hauetan lehena eta emankorrenetakoa da. Macriren zurikeria berehala geratu da agerian eta iparraldeko nagusiaren laudorioak azkar iritsi dira, alde batetik izaera neoliberalerako neurri sorta ikaragarri bat martxan jartzeagatik, bestetik Venezuelako Errepublika Bolivartarreko gobernu kriminalizatu nahi duen eskualdeko kontserbadurismo berriaren buru izateagatik eta azkenik bi base militar estatubatuar ezartzeko negoziaketak ontzat emateagatik, bata Patagonian eta bestea Brasil, Paraguay eta Argentinaren arteko mugan, munduko akuiferorik handienetik hurbil.

Baina are garrantzitsuagoa da Brasilen ematen ari den guda, hau baita harrapakinik preziatuena baliabide naturalen eremuan. Estatu Kolpe instituzionalak Dilma Rousseff baztertzea lortu du eskualdearen kontrol geopolitikorako ezinbestekoa den herrialde honetan AEBen kontrolpeko gobernu bat ezartzeko. Halaber, ustez finkatuago zeuden gobernuen aurkako kanpainak nabarmenki areagotu dira, esaterako, Bolibian Evo Morales berrautatzearen aurkako kanpaina. Venezuela jasaten ari den eraso eta estatu kolpe saiakera zenbakaitzek, bestalde, garaipen bat lortu dute oraingoz chavismoari Asanblada Nazionalaren kontrola eta ondorioz botere exekutiboa kendu izanagatik.



Azken kasu hau, Venezuelakoa, txikitu beharreko funtsezko pieza da zalantzarik gabe, XXI. mende honetan emandako eraldaketa prozesuaren motore izateaz gain, munduko petrolio gordin erreserba handienak dituelako Estatu Batuen kostatik ehunka kilometrotara soilik. Hala, gobernu chavistaren porrotak eta Kubako Iraultza barrutik suntsitzeko helburua duten negoziaketek duela ia 20 urte hasitako zikloaren bi erreferente ideologiko handienak ezabatzea lortuko lukete.

Jada kezkarria den egoera honi Kolonbiako gatazkaren konponbidearen prozesuak daraman bidea gehitu behar diogu, batez ere Gobernuak eta FARC-EPk sinatutako akordioa onesteko plebiszituan ezezkua gailendu ondoren. Horretaz gain, gatazka amaitzeko prozesuaren helburu bakarra gerrillak desaktibatzea eta transnazionalen aukerak zabaltzea izatearen kezkak ere bertan jarraitzen du. Aipatzekoa da, bestalde, Pazifikoko Aliantza eta TTP bezalako egitura neoliberal berriak garatzen ari direla eta akordio hauek izango direla Latinoamerikak inoiz pairatu duen neoliberalismo okerrearen berpizteko giltza.

Baina eraso hau inperialismoak bere krisiari aurre egiteko ezinbesteko neurri bat izan arren, Latinoamerikako prozesuen kontraesanak eta mugak dira ateak zabaltzen dizkietenak. Bi menderen ostean bigarren independentzia lortzeko bidea trabaz josia dago eta, urrats kualitatiboak eman badira ere, gaur egun neurri handiko erronkak gainditzea oztopatzen jarraitzen dute.

2.3 Prozesuen kontraesanak

Bigarren independentzia lortzeko bide honetan, egiturazko oztopoetako bat kontinentean historikoki inposatutako eta gaur egun nagusi den eredu ekonomikoaren ahultasuna da. Izan ere, erauzketa-esportazio ereduak herrien garapenerako beharrezkoak diren ondasunak modu endogenoan ekoizteko duen ezintasunak inportazioekiko eta Latinoamerikatik kanpo ezarritako prezioekiko menpekotasun sakona dakar eta horrek, azken urteotan, ondorio larriak eragin ditu tokiko ekonomietan. Eredu gisa petrolioaren prezioen beherakada eta horrek Venezuelak ongizate



politikak mantentzeko eragin zituen zailtasunak har ditzakegu.

Latinoamerikako herrialdeek haien esportazioen norakoa dibertsifikatu dutela egia bada ere, horrek ez du eredu ekonomiko autonomo bat garatzea ahalbidetzen. Gaur egun, Txinaren menpekotasuna arindu beharrean sakontzen ari den errealitate bat da eta arazo honen eredu paradigmakoenetako bat Argentinako soja monolaborantza dugu.

Eredu ekonomikoak ez laguntzeaz gain, egitura instituzional asko barrutik jaten dituen ustelkeriak edozein inizatibari eraginkortasuna kentzen dio eta beraz, aurrera ateratzeko prozesua moteldu egiten du. Batzuetan, baliabideak gutxitu egin ohi dira eta ustelkeriaren aurkako borroka ezinbestean talka egiten duela hautematen da endemikoak diruditen dinamika ustelen errealitatearen aurka.

Gainera, nahiz eta azken urteotan abiatutako prozesu guztiek ildo beretik aurrera egiten dutela pentsatu, nabarmena da ez dabilzala martxa berean. Brasil eta Argentinan kontzesio handiak egin zaizkio tokiko oligarkiari eta inperialismoari eta ez dira sistemaren egituraren oinarriak ukitu. Argi geratzen da klase kontziliazioaren proiektuak ezarritako mugak ibilbide laburra duela, are gehiago oparoaldi ekonomikoa bukatu eta sistema kapitalistak berriz ere bere alde gogorrera erakusten duenean.

Bestalde, Erdialdeko Amerikako prozesuei dagokionez, 90eko hamarkadan garatutako estrategia aldaketen ondoren proiektuaren norabidea ez zegoen argi eta kontraesan handiak sortu ziren eta horrek, zenbaitetan, esku-hartze inperialistari ateak zabaltzen zizkion.



Azkenik, eredu aldaketan gehien sakondu duten hiru prozesu hegoamerikarretan (Ekuador, Bolivia eta Venezuela) gorabeherak antzematen dira bi posturen artean: alde batetik, sozialismorantz trantsizioa sakondu eta herri botere kuota gehiago lortzea eta, bestetik, tokiko burgesiako sektore batzuekin batera kapitalismo nazional baten aldeko apustua egitea. Bigarren eredu honek eta lan ideologikoaren defizitak arazoak sortu ditu aldaketa prozesuari esker ongizate maila jakin batera iritsi ziren herri sektoreak proiektuaren barruan mantentzeko. Izan ere, geruza sozial zabal hau bere estatus sozial berri eta faltsuari tinko eusten ari zaio eta nahiz eta maila hori eman dion proiektua oraindik amaitu gabe egon, jada ez du bertan parte hartu behar duenik sentitzen.

Edonola ere, zuhaitzak ezin du basoa estali. Zailtasun koiunturalek ezin dute gogoak galtzea edo analisi okerrak egitea justifikatu. Urteetan garatutako eta txosten honetan zerrendatutako lorpenak ez dira noizbait loratuko den hazi bat, urakanik bortitzena jasateko gai den zuhaitz gazte eta indartsu bat

baizik. Kubako CDR-ak, Venezuelako Komunak edo Boliviako Batasun Ituneko mahaiak bezalako herri botere esperientziak ezin dira alde batera utzi eta ez dira gobernu aldaketekin batera desagertzen.

Horretaz gain, mugimendu sozialen nolabaiteko desmobilizazio etapa baten ondoren (besteak beste gobernu eta instituzioetan hartutako ardurengatik edo instituzioekin kontraesanetan ez sartzeagatik), berraktibazio prozesu bat ikusten ari gara. Nabarmentzekoak dira kontinentearen artikulazioa ALBA Mugimenduetan, Txileko ikasle mugimendu indartsua, lur gaineko meatzaritzaren aurkako mobilizazio handiak Argentina eta Ekuadorren, chavismoaren oinarri sozial borrokalaria Venezuelan eta Estatu Kolpearen aurkako mobilizazio itzelak Brasilen.

3. Irakaspenak eta ekintza ildoak



Askapenak, internazionalistak garenez, prozesu edo borrokan inguruan egiten den edozein analisis irakaspen guztiak batzeko atal bat behar duela uste dugu, gure askapen nazional eta sozialerako prozesua aberastu ahal izateko. Gure ikuspuntuaren arabera, esperientzia desberdinak ulertzen saiatzeak eta haiengandik ikasteak gure askapen prozesuan egin beharreko lan politikoan eta herri borrokalari hauekiko elkartasun internazionalistan sakontzera behartzen gaitu.

3.1 Irakaspenak

Azken bi hamarkadetan Latinoamerikan martxan egon den prozesuak eskaintzen digun lehen irakaspenera elkartasuna, burujabetza eta internazionalismoaren parametroetan eskualdea integratzeko aukera eta beharra da. Argi dago horretarako eskualdeko herri desberdinetan aldaketa estrukturalak egin behar direla eta berdintasunean oinarritutako harreman internazionalen zimenduak jartzeko oligarkiaren esparruak ahuldu eta herrien burujabetzaren aldeko egitura berriak sortu behar direla. ALBA da, zentzu honetan, azken hamarkadetakoa eredurik onena.

Bigarren irakaspenera da ezin ditugula azken bi hamarkadetakoa herri prozesuak ulertu herri mugimenduen ezinbesteko papera gabe. Alde batetik, funtsezkoak izan dira gobernu progresista berriak ahalbidetzeko orduan, izan ere, herri mugimenduek ez balute herria aktibatzea lortu ez ziren sekula osatuko prozesu hauen oinarri diren gehiengo zabalak. Mugimendu hauek kontinentean aldaketa emateko indarra izateaz gain, haien gobernuek burututako aldaketen bultzatzaile eta bermatzaile izan dira. Azkenik, inperialismoak

gobernu hauen aurka egindako erasoei aurre egiteko funtsezko eragile direla erakutsi dute, kontinente osoko Estatu kolpe saiakeretan ikusi dugun bezala. Lan ikaragarri hau gabe posible izango litzatekeena amestu beharko genuke, baina Latinoamerikako herri sektoreek posible dena erakutsi digute, amesten jarrai dezagun.

Bestalde, proiektu estrategikoagoak finkatzeko politika publiko progresistak bultzatzeak zer nolako garrantzia duen ikusi dugu. Ondotxo dakigu ogia soilik ez dela nahikoa pertsonen bizitzetarako, baina aldi berean, ogirik gabe, hitzak haizeak eramaten dituela. Ezinbestekoa da egunerokoa lantzea begirada epe luzera jarrita. Egunerokotasunik gabe kostata lortuko genuke proiektu estrategikoak gauzatzea, baina proiektu estrategikorik gabe, kostata mantendu daiteke egunerokotasuna. Horregatik, politika publiko progresistak martxan jartzea bezain garrantzitsua da lan ideologikoa elikatze bideak bilatzea edo burgesiaren estatu-logikatik at erabakiak hartzeko guneak zabaltzea (Estatu komunala...). Gainera, komunikabide talde handiak kapitalaren interesen esanetara daudela jakinda, lan hau aurrera ateratzeko funtsezkoa da prozesu bakoitzeko aurrerapenen berri emango duten komunikabide alternatiboak sortzea.

Aldi berean, oinarritzkoa izan da sozialismoaren ideiak berreskuratu eta indartzea herri zapalduen burujabetzarako bide gisa. Berlingo harresia erori zenetik Europan tabu bat izan dena, Latinoamerikan, desberdintasun eta kontraesan guztiekin ere, sistema kapitalista inperialista heteropatriarkal honen alternatiba erreal bakarra da oraindik. Jatorrizko herriek, bestalde, haien esperientzia komunitarioetako "Ongi Bizitzea" XXI. mendeko errealitateak ekartzen asmatu dute eta

“munduan zehar prozesu askok frogatu duten bezala, benetako independentzia sozialista izango da edo ez da independentzia izango”

horri esker, perspektiba arrazionalak, espiritualak eta emozionalak uztartzen dituen mundu-ikuskera berreskuratu eta errealtate soziopolitikoaren erdigunera ekarri da.

Argi eta garbi geratu den beste elementu bat burujabetze prozesu orok izugarritzko erresistentzia sortzen duela da. Tokiko oligarkiek eta inperialismoak eskura dituzten baliabide guztiak erabili dituzte eta erabiltzen jarraituko dituzte aldaketa txikiak ere eragozteko. Latinoamerikako ereduak argiak dira: Estatu kolpe saiakerak Venezuelen, Brasilen, Hondurasen, Txilen, Argentinan eta Paraguayen; paramilitar eta *Contren* erabilera Kolonbian, Nikaraguan edo El Salvadorren; jazarpen ekonomiko eta mediatikoa e.a. Nabarmentzekoa da Washingtongo Kontsentsuari esker inperialismo yankiak Latinoamerikako herriak sistematikoki menperatu ahal izan zituen bezala, Europan ere oligarkia handiak haien “kontsentsu” propioa garatzen saiatzen ari direla, Bruselakoa, Europako langile klaseak XIX. mendeko baldintzetara itzultzea duena helburu. Hala ere, Latinoamerikak martxan dauden prozesuek erakutsi digute uste osoa borrokan jarrita herri langileek oligarkien interesak zapuztu ditzatekela. Garrantzitsua da egokitu zaigun paper historikoa gure gain hartzea egoera aldatu eta mundu burujabe baterantz ibiltzen hasteko.

Azken irakaspen eta konklusio gisa, munduan zehar prozesu askok frogatu duten bezala, benetako independentzia sozialista izango da edo ez da independentzia izango. Latinoamerika horren adibide argia da. Deskolonizazio prozesuen hasieratik 200 urtetik gora pasa ondoren, kontinenteko herriak oraindik ere burujabetza lortzeko borrokan ari dira. Europa eta AEBen inperialismoaren erasoek eta tokiko burgesien otzantasunak etorkizun kaskarra iradokitzen dute

herrialde hauetako langile klaseentzat. Martxan dauden prozesuek sozialismoaren banderarekin bakarrik lortu dute bertako eta kanpoko kapitalaren erasoak geldiaraztea. Horregatik ezinbestekoa da prozesu guztietan herri langilea antolatzea eta sozialismoaren bandera goratzea bigarren eta behin betiko independentzia lortu ahal izateko. Horrela soilik prestatuko dugu gure askapenerako bidea.

3.2 Ekintza ildoak

Amaitzeko, Abya Yalako herri borrokalariekiko elkartasuna antolatzeko Euskal Herrian jarraitu beharreko ekintza ildoak laburtuko ditugu.

Lehena eta premiazkoa Europak eta AEBek Latinoamerikako herrien aurka egindako eraso inperialista ideologiko, ekonomiko edo militarrek inoiz baino gehiago salatzea da. Ezin dugu onartu herriaren ongizatearentzat hain garrantzitsuak diren gobernu legítimoak ezegonkortu eta botatzeko saiakerak zigorrak gabe gelditzea. Venezuelako Errepublika Bolivartarreko gobernuaren aurka garatutako jazarpen politikak tinko eta mobilizatzeko prest topatu behar gaitu, Latinoamerikako burujabetza prozesuaren motorra denaren defentsan.

Bigarrena eta estrategikoa herri boterearentzat guneak sortzen ari diren esperientzia guztiak babestea da (kontseilu komunala, fabrika berreskuratuak, okupatutako lurak, hezkuntza herrikoia...). Gure ustez, esperientzia hauek askapena lortzeko egin beharreko bide luzean zehar botere politiko eta ekonomikoa herriarena eta herriarentzat izango dela bermatuko duten bakarrak dira.

Hirugarrena jatorrizko herriekiko elkartasuna sendotzea da, haien eskualdean oraindik indarrean dagoen egitura kolonial osoa (politikoa, ideologikoa, kulturala) hankaz gora jartzen duen borrokaren garrantzia dela eta. “Ongi bizitzea” lortzeko borrokak, haien eskubideak, lurraldetasuna, historia, nortasuna, kultura eta erabakitzeak eta gobernatzeko ereduak errespetatzeko borrokak hain zuzen ere, gure burua beste begi batzuetatik begiratzeko eta elkartasuna adierazteko ispilu aberasgarri bat osatzen du.

4.

GLOSARIOA

• Washingtoneko kontsentsua:

Estatu Batuek II. Mundu Gerraren ostean mundu mailako kontrol, ekonomikoa nagusiki, bereganatzeko sortutako erakundeek ezarritako neurriei egiten die erreferentzia kontsentsuak. Herrialde azpigaratuen edo Hirugarren Mundua deritzen herrialdeen garapenerako kredituak eta finantziazioak ematen dituzte Washingtonen egoitza duten erakunde horiek. Zehatzago esateko, Munduko Bankuak, Nazioarteko Diru Funtzak eta AEBetako Altxorren Sailak aplikatzen dituzten politikak dira. Epe labur eta ertainera, batetik, Hegoaldeko herrialdeen kanpo-zorra finantzatzeko politikak garatu zituzten; eta bestetik, 60ko hamarkadako krisi ekonomikoaren ondorioz herrialde garatuen irabazi-tasak izandako beherakadari bultzada emateaz arduratu ziren. Epe luzera, kapitalismoa ordena sozial, ekonomiko eta kultural bakar gisa kontsolidatuko zuen proiektu global bat ezartzea lortu nahi zuten, finantza, ekoizpen eta lan merkatuak desarautuz.

• Caracazo:

Venezuelarrek «Caracazo» edo «Sacudón» esaten diote herria muinoetako auzo xumeetatik jaitsi zen egunari. 1989ko otsailaren 27an eta 28an herritarrek supermerkatuak, harategiak eta gai elektronikoen eta linea zuriko gaien negozioak arpilatu zituzten. Garai hartan, biztanleriaren %62 pobrezia betean zegoen. Garraio publikoaren prezioak gora egin zuen, eta hura izan zen, hain zuzen ere, herri-matxinada piztu zuenugarra. Washingtoneko kontsentsuaren politiken eta petrolio krisiaren ondorioz, hainbat egiturazko doikuntza aplikatu zituen Carlos Andres Perez Acción Democrática alderdi sozialdemokratako kideak; eta garraiolariak prezioa % 50 igo behar izan zuten. Istiluetan 2.000 pertsonatik gora erail eta desagerrarazi zituzten.

• Uraren Gerra eta Gasaren Gerra:

Uraren Gerra (2000) eta Gasaren Gerra (2003)

adierazgarrienak dira. Lehena Cochabamba izan zen, Higo Banzer presidenteak «Aguas del Tunari» enpresaren bitartez uraren pribatizazioa martxan jarri zuenean, Munduko Bankuak horretara bultzatu ondoren. Pribatizazioarekin batera, salneurriak %50 baino gehiago igo ziren, eta horrek protestak, errepresioa eta erailketak ekarri zituen. Hala ere, partzuergo transnazionala kanporatzea lortu zuten herritarrek. Hiru urteren buruan, Gasaren Gerra lehertu zen. Sanchez de Lozada 'Goni' presidenteak gasa AEBetara Txilen barrena prezio oso baxuan esportatzeko asmoa erakutsi orduko, herritarrak altxatu egin ziren. Presidenteak dimititu eta ihes egin zuen herrialdetik.

• Estraktibismoa:

ekoizpen-eredu sozioekonomiko bat da, eta ondasun komun naturalak erauzi, jabetza pribatu bilakatu, eta mundu mailako merkatuan saltzean oinarritzen da. Marxen jatorrizko metaketari edo desjabetzearen bidezko metaketari dago lotuta: «ekoizlearen eta ekoizpen-bitartekoaren arteko bereizketaren prozesu historikoa da, funtsean; giza-masa handiak haien biziraupenerako eta ekoizpenerako bitartekoengandik bat-batean eta bortizki bereiztea», langileak libre geratzeko. Libre, ordea, bi zentzutan: morrontza feudaletik libre eta ekoizpen-bitartekoaren jabetzatik libre; hau da, beren lan-indarraren jabe besterik ez, eta jabetza bakar hori beren biziraupena bermatzeko merkatuan saltzera behartuta egonda.

• Gini indizea:

desparekotasunaren adierazlea da. Normalean, herrialde bateko diru-sarreraren desparekotasuna neurtzeko erabiltzen da. Giniren koefizientea 0 eta 1 arteko zenbaki bat da: 0 erabateko parekotasuna da (denek diru-sarrera bera dute) eta 1 erabateko desparekotasuna (pertsona bat diru-sarrera guztien jabe da).

• Ongi bizitzea:

kontzeptuaren bultzatzaileen arabera, parekidetasunean eta justizian bizitzea da. Esplotaturik eta esplotatzailerik gabeko bizimodua da, bazterturik eta baztertzailerik gabekoa, marjinaturik eta marjintzailerik gabekoa. *Ongi bizitzea* komunitatean bizitzea da, kolektibitatean, elkarrekikotasunean, elkartasunean eta, batez ere, osagarritasunean. *Ongi bizitzea* ez da hobeto bizitzea, bestea baino hobeto bizitzea (...); *ongi bizitzea* baldintza parekideetan bizitzea baita, eta hobeto bizitzea berekoikeria baita, besteeikiko interesik eza, indibidualismoa.

• ALCA:

Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunaren (TLCAN) Latinoamerikarako bertsioa da. Ameriketako I. Goi-bileran proposatu zen, Miamin. Estatu Batuen arabera, ALCA «Latinoamerikaren garapenerako ezinbesteko merkataritza itun bat zen»; aurkakoen ustez, ordea, «Estatu Batuetako enpresa-sektoreek eta gobernu-sektoreek diseinatutako plan bat, hemisferioko herri eta herrialdeekiko nagusitasuna zabaltzeko eta indartzeko». Itunak garapenaren pentsaera teleologiko eta lineala errotzea zuen helburu; garapentzat ulertuta, globalizazio neoliberalaren hegemonia indartsua nagusi den testuinguru bateko hazkunde ekonomiko soila. Bestalde, kapitalaren ikuskera inperialista eta geoestrategikoaren baitan sortutako ituna zen, eta Estatuek itun horren berrestaile eta bitartekaritza zuten bere burua, ez prozesu «desarrollista» horien sustatzailerik.

• ALBA:

ALCAren porrota baino urte bat lehenago, 2004ko apirilaren 14ean, Venezuelako Errepublika Bolivartarreko presidentearen eta Kubako Estatuko Kontseiluko presidentearen artean itun bat sinatu zen, Ameriketarako Alternatiba Bolivartarra (ALBA) aplikatzeko. Itunak hainbat printzipio jasotzen zituen, aipagarriena: merkataritza eta inbertsioa ez dira helburu izango bere horretan, garapen justu eta jasangarri bat lortzeko baliabideak baizik. ALBAk proiektua eta printzipioak garatzen jarraitu zuen. 2006an Bolivia batu zen, eta Evo Morales presidentearen Herrien arteko Merkataritza Itunaren (TCP) proposamena onartu zen, AEBek sustatutako Merkataritza Libreko Ituna alboratuz. Ituna

«merkataritza osagarria berreskuratzeko eta praktikan jartzeko alternatiba bideragarritzat jotzen da, herrialdeek garapenaren eta politika ekonomikoen inguruan hartutako erabaki burujabeak errespetatuz, beti ere». Ordutik, praktikan, ALBA-TCP deritzo plataformari, eta hein batean, herrien mundu-ikuskera ALBAn txertatzea izan da. Ondorengo urteetan beste hainbat herrialde batu ziren alternatibara: Nikaragua 2007an, Dominika eta Honduras 2008an (estatu kolpera arte), eta azkenik, Ekuador eta Karibeko Saint Vicent eta Grenadinak eta Antigua eta Barbuda irlak 2009ko ekainaren 24ean. Gerora, ALBA-TCPren hazkunde eta irimotasun politikoa benetako indar eraginkorra izaten ari zela iritzirik, integrazio eremu bolivartarra Alternatiba izatetik Aliantza izatera pasa zen, Ameriketako Herrien Aliantza Bolivartarra, Herrien arteko Merkataritza Ituna, hain zuzen ere. Izan ere, ALBA proiektuak beste proiektuarekiko (ALCA, porrota izan zena) kontraposizio fasea gainditu eta finkatu egin zela ikusi zuten, eta pixkanaka eskualde mailan eragitea lortzen ari zen bloke bat bihurtu zela.

• Mercosur:

Formalki, eskualdeen integrazio prozesu bat da, 1991. urtean sortu zena Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguaien artean. Gaur egun, prozesu horretan parte hartzen dute Venezuelak, Boliviak eta Ekuadorrek ere, kide gisa. Latinoamerikaren aldeko integrazio prozesua da, eta Europar Batasunaren eredu klasikoa hartzen du eredutzat. Integrazio bidean, hainbat fase proposatzen ditu: estatukideetan muga-zergak kentzetik hasi, merkatu komuna garatu, eta batasun ekonomiko-politikoak legokeen amaierako fase hipotetikora arte. Munduko laugarren bloke ekonomikotzat hartzen da negozioen garrantziari eta kopuruari dagokionean; eta munduko bosgarren ekonomia, bloke osoak ekoizitako BPGd nominala kontuan hartuz gero. Prozesuaren sustatzaile nagusiak (Brasil eta Argentina) G20 taldeko kideak dira, eta Brasil BRICSekoa da.

• AEE:

Amerikako Estatuaren Erakundea mundu mailako eskualde-erakunderik zaharrena da. 1948an sortu zen, AEEren sorrera Gutuna sinatzean, eta gutun hartan erakundearen helburu nagusiak finkatu ziren:

“bakean eta justizian oinarritutako ordena bat lortzea, elkartasuna sustatzea, lankidetzat indartzea eta burujabetza, lurralde osotasuna eta independentzia defendatzea”. Gaur egun, Ameriketako 35 estatu independenteak biltzen ditu, nahiz eta Kuba gaurdaino erakundetik kanpo utzi den eta oraindik ere parte hartu gabe jarraitzen duen, egun, erabaki propioz. AEEren arabera, erakundearen oinarri nagusiak demokrazia, giza eskubideak, segurtasuna eta garapena dira. Hala, nahiz eta gutunaren lehen artikulua zehazten duen “xedapen bakar batek ere ez diola erakundeari baimena ematen Estatukideen barne-jurisdikzioko gaietan esku hartzeko”, erabat aurkakoa gertatu zen erakundea sortu orduko testuinguruan, Gerra Hotzaren garaiko mundu bipolarrean. Adibidez, 1945ean United Fruit Company banana-industriaren interesei kalte egiten zien nekazaritza-erreforma defendatzen zuen Jacobo Arbenaz Guatemalako presidentearen gobernu nazionalistaren aurka Washingtonek militarki esku hartzea onartu zuen. Gerora, 1962an Kuba kanporatu zuen, eta Estatu Batuek ezarritako blokeoa onartu zuen. Estatu Batuek atzeko patiotzat duten Latinoamerika kontrolpean izateko baliabide bat da erakundea, zalantzarik gabe.

• CELAC:

2010ean Mexikoko Rivera Mayan eginiko Batasunaren Goi-bileran –Rio Taldearen XXI. Goi-bilerak eta CALC Latinoamerikako eta Karibeko II. Goi-bilerak sortua–, Latinoamerikako eta Karibeko Estatu Komunitatea (CELAC) sortzea adostu zuten. Ofizialki, hurrengo urtean sortu zen, Caracasen hain zuzen ere, Espainiarekiko independentziaren 200. urteurrenean, Chavez sustatzaile eta anfitrioi zutela. Eskualdeko herrialde guztiak biltzen ditu. Komunitateak ikuspegi integratzailea du, zeinak ikuspegi politiko eta soziala lehenesten dituen, ekonomikoaren gainetik, eta gehiago lantzen ditu hirugarren belaunaldiko giza eskubideak, AEEren gutunean lehenesten diren eskubide zibil eta politikoak baino. Bestalde, CELACen I. Goi-bileran idatzitako Santiagoko adierazpenaren atal batzuk azpimarratzen dituzte, adibidez 24. puntua: “Irmo arbuiazen ditugu zenbait herrialde garaturen aldebakarreko ebaluazio, zerrenda eta egiaztapenak, legítimo ere ez direnak. Zuzenki eragiten die eskualdeko herrialdeei,

nagusiki terrorismoari, narkotrafikoari, pertsonen salerosketari eta antzekoei erreferentzia egiten dieten horiek”. Hein handi batean, AEEri aurre egin eta ordezkatzeko helburu duen erakunde bat da, nahiz eta ez dagoen zehazki hala jasota (eskualdeko herrialde progresisten aldetik, behintzat).

• Monroe doktrina:

John Quincy Adamsek 1823an garatutako ideiatik dator: «Amerika amerikarrentzat». Ideia hori gerora Monroe doktrinari islatu eta aplikatu zen, eta politika haren bitartez, AEBk Europak Latinoamerikan egindako edozein esku-hartzeren aurka ekiteko eskumena zuela erabaki zuen. Doktrina aro bipolarrean luzatu zen, bloke sozialistatzat zutenaren esku-hartzearen aurka ere baliatzeko. Ideia berari tiraka, «Chicagoko eskolak» markatutako politika ekonomiko neoliberalak aplikatzen zituzten gobernu diktatorialak babestu eta ezarri zituzten. Ideia berbera erabiltzen da gaur egun ere Latinoamerikan esku-hartzeko; baina, kasu honetan, «etsaia» ez datorkie kanpotik, “kontinentean bertan” jaiotako proiektu bat dute mehatxu.

• Pazifikoko Aliantza:

Aliantzaren arabera «eskualdea integratzeko ekimen bat da, Txile, Kolonbia, Mexiko eta Peruren artean sortutakoa, 2011ko apirilaren 28an. Helburuetako bat da integrazio-eremu zabala bat garatzea, ondasunen, zerbitzuen, kapitalen eta pertsonen zirkulazio librea progresiboki urratsak ematen joateko». Praktikan, jada AEBekin merkatu libreko aldebiko hitzarmenak sinatuta zituzten herrialdeen batasuna da, eta helburua, neoliberalismotik kompetentziatzat zituzten proiektuei aurre egitea, hala nola Mercosurri edo ALBaren moduko kontrahegemonikoei. Merkatu amerikarrak batzea lortu nahi du, Asiara begira (denak dira Pazifikoko ardatzaren baitakoak).

• ALBA Mugimenduak:

ALBaren aldeko Mugimendu Sozialen Artikulazioa kontinentea integratzeko proposamen bat da, inperialismoaren, neoliberalismoaren eta patriarkatuaren aurka egiten duena eta oinarri sozial antolatua duten mugimenduek bultzatutakoa. Mugimendu horiek, herri-mobilizazioa aktibatzen

ahalmena dute, eta parekidetasunaren, askatasunaren eta eskualdearen benetako emantzipazio baten alde egiten dute borroka. Oinarriaren eta ezkerren artikulazioa sustatzen du, eta herrialde bakoitzean Herrien ALBA integrazio prozesuarekin bat egiten duten mugimendu eta indarrak aniztasunez biltzen dituen proiektu antolatzaile bat bultzatzen du. Proiektu politiko emantzipatzailea helburu duen koordinazio-tresna bat eta plataforma nazionalak sortzeko zeregin politiko-etikoa du.

• TPP:

Itunaren arabera, Ozeano Bareaz bestaldeko Lankidetzak Ekonomikorako Ituna, TPP ingelesezko siglengatik ere ezaguna, merkataritza librerako itun aldeaniztun bat da. Bost urtez sekretupean negoziatu zen, eta azkenean, 2015eko otsailean sinatu zuten herrialde negoziatzaileetako gobernuek. Orain, herrialde bakoitzeko Kongresuetan onartu zain dago. Estatu Batuek sutsuki sustatua, itunak beste 11 herrialde ere hartzen ditu bere baitan: Japonia, Australia, Zeelanda Berria, Malaysia, Brunei, Singapur, Vietnam, Kanada, eta Latinoamerikako Mexiko, Peru eta Txile.